# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilak 14**

**Vitoria-Gasteiz, 14 de enero de 2020**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@ej-gv.es

## Segurtasuna

**JOKO-ARETOAK INSTALATZEKO EDO HORIETAN ALDAKETAK EGITEKO BAIMEN BERRIAK ALDI BATERAKO BERTAN BEHERA UZTEA ERABAKI DA, PLANGINTZA BERRIA BERRIKUSTEN DEN BITARTEAN**

Gobernu Bilerak gaur erabaki du, Segurtasun Sailak eskatuta, uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duenaren, I. Eranskinean jasotako prozedurari, jokoaren plangintza berrikusteko nahiz erregelamenduan eguneratu edo eraberritu beharreko alderdiak aldatzekoari, hasiera ematea.

Jokoaren plangintza honako arau hauei jarraituz berrikusiko da:

a) Jokoaren Euskal Behatokiak sektore sozio-ekonomikoari eta jokoaren pertzepzio sozialari buruz landutako txostenetan eta prestatutako ekintza-planaren lerro estrategikoetan oinarrituta egingo da berrikuspena, eta, era berean, kontuan izango du apirilaren 7ko 1/2016 Legearen, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoaren, 50. artikuluan eta 2017-2021 aldirako Euskadiko Adikzioen VII. Planean ezarritakoa.

b) Plangintza, berrikusteko prozesuan, jendaurrean jarriko da, eta txostena eskatuko zaie Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkulariari nahiz Jokoaren Euskal Kontseiluari, uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duenaren, 9. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Horrez gainera, xedapen orokorrak lantzeko araubide erregulatzailearen arabera beharrezkoak diren izapide guztiak bete beharko dira.

c) Berrikusitako jokoaren plangintza Gobernu Kontseiluak onartu beharko du, akordioa EHAAn argitaratzen den egunetik zenbatzen hasi eta bederatzi hilabeteko epean, nahiz eta epea luzatu ahal izango den, interes publikoko arrazoiengatik beharrezkoa izango balitz.

Bestalde, Gobernu Kontseiluak erabaki du plangintza berrikusteko araudia izapidetzen eta onartzen den bitartean bertan behera uztea joko-aretoak instalatzeko eta abian jartzeko baimenak emateko eta izapidetzeko prozedurak, bai eta horietan aldaketak egitekoak ere, lokalaren azalera gehitzea ez dakarten obren kasuan izan ezik; era berean, denbora horretan bertan behera geratuko dira joko-makinak ustiatzeko baimen berriak ere.

**Seguridad**

## ACORDADA LA SUSPENSIÓN TEMPORAL DE CONCESIÓN DE NUEVAS AUTORIZACIONES DE JUEGO O MODIFICACIÓN DE LOCALES DE JUEGO DURANTE LA REVISIÓN DE LA NUEVA PLANIFICACIÓN

El Consejo de Gobierno ha acordado hoy, a instancias del Departamento de Seguridad, iniciar el procedimiento para la revisión de la planificación del juego que se recoge en el anexo I del Decreto 120/2016, de 27 de julio, por el que se aprueba el Reglamento General del Juego en la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como a la modificación de los aspectos del citado reglamento que requieran de actualización o reforma.

La revisión de la planificación del juego se realizará atendiendo a las siguientes reglas:

a) La revisión se fundará en los estudios sobre el sector socio-económico y la percepción social del juego elaborados por el Observatorio Vasco del Juego y en las líneas estratégicas del plan de acción elaborado y atenderá igualmente a lo dispuesto en el artículo 50 de la Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias y en el VII Plan de Adicciones de Euskadi 2017-2021.

b) En el proceso de revisión de la planificación se dará audiencia pública y se recabará el informe de la Comisión Técnica Asesora de Juego y del Consejo Vasco de Juego, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 9 del Decreto 120/2016, de 27 de julio, por el que se aprueba el Reglamento General del Juego en la CAE, sin perjuicio del resto de trámites precisos de conformidad con la normativa reguladora de la elaboración de las disposiciones de carácter general.

c) La revisión de la planificación del juego resultante deberá ser aprobada por el Consejo de Gobierno en el plazo de nueve meses contados a partir de la publicación del acuerdo en el BOPV, sin perjuicio de su prórroga, si fuera preciso por razones de interés público.

Asimismo, el Consejo de Gobierno ha acordado suspender la tramitación y concesión de autorizaciones de instalación y funcionamiento de locales de juego en la Comunidad Autónoma de Euskadi, o sus modificaciones salvo las que se refieran a obras que no supongan incremento de la superficie del local, así como suspender la concesión de nuevos permisos de explotación de máquinas de juego en tanto se tramita y aprueba la normativa de la revisión.